

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 222. zkia. 2014ko apirila



**Xabat Areitioaurtena,  
Mallabitik Gernikara**



# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Doctor Antonio Murillo**

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.  
**Leidako Unibertsitatea eta Madril.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.  
**Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea.  
**Leidako Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea.  
**Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Institutuzietako Irakasle gonbidatua.  
**Madridgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

**Doctora Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madridgo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSAÚDE, PADI...  
**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**

clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Igone Amesti, Ines Arano,  
Ibaia Azagirre, Leire  
Elustondo, Estibalitz  
González eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA  
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Igone Amesti eta Ibaia  
Azagirre.

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Eskolabarri, Ana Gómez,  
Asier Ibaibarriaga,  
Fede Iturriagagoitia,  
Patxi López, Pello Mugarza,  
eta Valentin Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Ines Arano, Dangiliske, Leire  
Elustondo, Eskolabarri,  
Estibalitz González, Zaida  
Fernández, Asier  
Ibaibarriaga, Ainhoa Lasuen,  
Christian Lassalle, Valentin  
Mugarza eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.400 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-215/94.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

## PIZARTXARRA *Tarabilla norteña Saxicola rubetra*



Afrikan ematen dute txori askok negua eta Euskal Herria atsedene-  
leku estimatua da ehunka txori espeziatzako, bai pasean bai  
kontrapasean. Instintiboki egiten dute joan-etorria, jaiotze-  
z daramatan GPS miresgarri horren koordena-  
dei jarraituta. Negu afrikarra hemengo  
baino xamurragoa izanda ere,  
ahulenak bertan edo bertaratzen  
galtzen dira. Bueltan hona datoze-  
nerako indartsu egon behar dute,  
kumatze sasoiari bete-betean sartzen  
dira-eta. Pizartxarra ere bidaiari multzo  
horretan sartzen da; gurean baserri inguruak  
dira bere habitat arruntena, ereindako lursaile-  
tatik gertu: Errekalde, Berano, Gerie, Añño,  
Goitta, Aitxixo, Zengoitte...

## Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4	KIROLZALE .....17
Juan Carlos Colina, Kuba	7 ermuar taekwondo txapelketan
ELKARRIZKETA .....5-7	IRITZIA .....18
Zaida Fernández, ikertzailea	Uraren faktura
MALLABIAN ZER? .....8-9	SALEROSKETAK .....19
Xabat Areitioaurtena	Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER? .....12	ANTZINAKOAK.....20
Dangiliske taldea Ermuan Kantuan-en	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN.....14-15	KALEKO INKESTA .....21
Graxi Arregi bertso txapelketan irabazle	Uraren faktura
BOTEPRONTOAN .....16	AGENDA .....22
Eduene Altuna	Maiatzeko agenda

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

# Juan Carlos Colina

La Habana hirian dagoen herri batekoa da Juan Carlos, Guanabacoa herrikoa, hain zuzen ere. 36 urterekin etorri zen Ermura eta 17 urte daramatza hemen jada. Anaia eta arreba bana ditu, bera baino gazteagoak. 14 urterekin hasi zen antzerkia egiten, afizionatu moduan; gaur egun ere eguneko ordu gehienak eskaintzen dizkio bere zaletasun kuttunenari, berea den enpresak baimena ematen dionean.

## - Nolako zen zure bizitza Kuban?

Kultur-Etxe bateko zuzendaria nintzen Reglan (La Habanan). Oso lan interesgarria zen: auzo marjinaletan kultur proiektuak garatzen nituen, kultur maila baxua zuen jendearekin lan egin... Eta beste alde batetik, antzerkiak eta kabaret-ikuskizunak zuzentzen nituen, ekitaldiak aurkeztu... zer ez!

## - Horretarako formazioa bazenuen?

Bai. Pedagogia ikasten hasi nintzen arren -Historia eta Filosofiako espezialitatean-, gutxira konturatu nintzen bide okerretik nindoala, eta Ikuskizun-Zuzendaritza ikasi nuen.

## - Zer dela-eta etorri zinen?

Lan egiteko gonbitea jaso nuelako. Bilboko Udalak proposatu zidan Karibeko eta, batez ere, Kubako sinkretismo kulturalaren inguruko hitzaldi-zikloa egitea, urtebetez. Kontua da urte horretan bestelako lan-proposamenak jaso nituela. Gainera, nire familia ez zen



jada Kuban bizi eta ni gustura sentitzen nintzen hemen. Kubara bueltatzeko erabakia atzeratzen joan nintzen.

## - Nola hartu zintuzten hemen?

Zoragarri, oso ondo tratatu naute; egia da nire aldetik ere asko ipini dudala. Ez daukat herrimik, sendatu nintzen, eta horri esker zoriontsuago bizi naiz.

## - Aldaketa erraza izan zen?

Ez, aldaketak ez dira sekula errazak. Hipermerkatu batera sartu nintzen lehen aldian, esaterako, ugaritasuna ikusteak min handia eman zidan. Negrerez hasi nintzen. Bidegabekeria da batzuek horrenbeste izatea eta beste batzuek ezer ez.

## - Zerk harritu zintuen?

Paisaiak. Euskadi hobbits-en Erdialdeko Lurra dela esan dut beti, Tolkienek deskribatzen zuen bezala. Zelaiek, landarerek gabeko mendiek, itsasoak, itsaslabarrek... zoratzen naute!

## - Zer botatzen duzu faltan?

Argia, egun ilunek suntsitzen naute. Kubako idiosinkrasia baita ere, umorea. Ez ditut hemengo gauza asko serio hartzen: ez dut etxebizitza erosi nahi, ez dut kotxerik nahi... Integrazioa konpartitzea da, ez zurea den guztiari uko egitea.

## - Kubara bueltatzen zara?

Behin bakarrik bueltatu naiz, 2005ean, eta oso hondatuta ikusi nuen dena. Nik lan egiten nuen Kultur-Etxea, esaterako, eraitsita zegoen. Bestalde, jendea oso nekatuta dago; nola edo hala bizimodua atera behar dute eta, nire herrialdea izanda ere, zenbait konturekin deseroso sentitu nintzen.

## - Euskara ikasten ari zara, ezta?

Bai, 3 ikasturte ezberdinetan hasi naiz, baina zaila da klaseetara joateko denbora ateratzea. Oinarrizko kontuak behintzat ikasi nahiko nituzke, lanerako eta lagunartean nagoenean erabili ahal izateko.

**SAN ANTONIO**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen



Zaida Fernández, ikerlaria:

## “Bertako emakumeen oroimen kolektiboa berreskuratu eta bistaratu behar da”

Zaida Fernández ermuarra Soziologian lizentziatua da eta “Ikerketa ereduak eta arloak Gizarte Zientzietan” izeneko doktoretza-ikasketak ditu. Aspaldi jarri zuen arreta feminismoan eta, horretan trebatzeko, “Ikasketa feministak eta Generokoak” masterra egin zuen. Emakumeen Asanbladako kidea da, 3 urte daramatza Emakumearen Topalekuko dinamizatzaile moduan eta Bizkaiko Jabekuntza Eskolako ikaslea eta irakaslea ere bada. Apirilaren 12an, berak egindako *Aztarna feministak eta emakumeen aztarnak: Gure borrokaren oroimena* ikerketa aurkeztu zen Lobianon eta horren erakusketa ikusgai egongo da Emakumearen Topalekuan (Izelaieta kalean) apirila osoan.

- Zer jasotzen du Azterna feministak eta emakumeen aztarnak: Gure borrokaren oroimena ikerlanak?

Ermuko emakumeen eta feminismoaren oroimena berreskuratzen du, aldarrikapen feministak baliatuz. Hau da, liburuak atal ezberdinak ditu eta horietako bakoitzean feminismoaren aldarrikapen bat islatzen da. Adibidez, *Erasorik ez erantzunik gabe* atalean, herriko emakumeek eta mugimendu feministak indarkeria sexistaren kontra egindako lana jasotzen da.

- *Aztarna hitza erabiltzen duzu izenburuan. Zer dira aztarnak?*

Emakumeentzat eta herriko mugimendu feministarentzako esanguratsuak edo garrantzitsuak diren, edo izan diren, leku eta garaiak. Ermuaren kasuan, planinaren edo gazteentzako sexu-informazio bulegoa aztarnak dira, besteak beste.

- *Lanak, beraz, Ermuko errealitateaz soilik hitz egiten du?*

Bai. Atalei hasiera emateko, gai jakin baten gaineko



ideia orokorrak azaltzen ditut, eta, hortik abiatuta, Ermuan bizi izandakoa jasotzen dut. Hala ere, Ermuan ez ezik, ikerketa bertua burutu dut Euskal Herriko beste hiru herritan ere: Basaurin, Ondarroatan eta Erreterian.

- *Lanak emaitza positiboak izan ditu?*

Nik ez nuke emaitzez hitz egingo, prozesuaz baizik. Izan ere, lan honen helburua ez da dokumentu bat sortu edo erakusketa bat martxan ipintzea (edo ez helburu bakarra,

behintzat): partaidetza sustatzeko prozesuak abiatzeko xedea ere badu. Lau herri ezberdinetako emakumeekin bildu naiz, euren arteko saretxoa sortu dut eta haiek aukeratu dute zeri buruz hitz egin, zertarako, nola... Bestalde, proiektu horien bitartez ekintza positiboak bultzatu nahi ditugu: ibilbideak eta mapak egin, eskoletan lantzeko materiala sortu...

- *Emakumeen sareak sortzea da helburuetako bat. Ermuaren kasuan, sare horiek ez daude jada eraikita?*

Ez, eta gure herrian gainera oso gauza polita lortu nuen: talde elkarrizketak egiterakoan, belaunaldi ez-

berdinetakoak diren Emakumeen Asanbladako kideak bildu ziren, 30 eta 70 urte bitarteko emakumeak, hain zuzen ere. Hori orain arte ez da sekula gertatu. Topaketa horietan elkartruke interesgarriak egiten dira, hausnarketa sortzen delako. Izan ere, mugimendu feminista mundua aldatzeko sortu zen, etorkizuneko mugimendua zen, aurrera begirakoa. Baina orain mugimendu horiek iragana ere badu. Eta zer egin iraganarekin? Zer gertatzen da iragana ezagutzen ez denean? Gauzak egiteaz gain, horiek erregistratzeak eta zabaltzeak berebiziko garrantzia du. Mugi-

**“Lan honen bitartez, ekintza positiboak bultzatu nahi ditugu”**

 **NEREA IÑIGUEZ  
HORTZ KLINIKA**



San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

*Ferreteria/Burdindegia*

 **ANBOTO**

- \* Burdindegia
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Giltzak / Aginte automatikoak
- \* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- \* Opari artikulua

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer\_anboto@hotmail.com  
www.ferreteriaanboto.es



**HARATEGIA - URDAITEGIA**

**MIGUEL**

2012ko BILBOKO  
TXORIZO TXAPELKETAN  
BIZKAIKO  
TXAPELDUNAK

PROBLEKU 3-943170563  
ERMUA



**Caperos**



Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

mendu feministarekin identifikatzeko, berari esker gaur ditugun eskubideez jabetu behar dugu.

**- Gauzak jaso eta zabaldu ezean, galdu egiten dira?**

Bai. Neska talde gazte oso aktibo eta indartsua egon zen Ermuan aspaldi. Hori berreskuratzen ez badugu, jende gazteak ez du horren berri izango, eta erreferente ona izan daiteke eurentzat.

**- Horrelako une eta gertaerak jasotzen dituzu lanean, ehunka aipamenen bitartez. Nola jaso dituzu testigantza guzti horiek?**

Elkarrizketa pertsonal edo taldeko solasaldien bitartez. Nik ez nituen datu hotzak jaso nahi, emakumeei hitza eman nahi nien. Nik gaia aipatu eta eurek horrekin lotuta bizi izandakoaz hitz egiten utzi diet. Emozioz betetako lekukotasunak di-

ra, hunkigarriak. Gure herriko emakumeak beste modu batera ikustea ahalbidetzen dute aipamen horiek: euren lorpenak, borrokak sentipenak eta bizipenak ezagutzearekin bat, emakumeen lana errekonozitzeko eta historiako eta hirigintzako subjektu moduan ikusteko bidea erakusten baitute.

**- Hori da lanaren beste helburuetako bat?**

Bai, aurretik aipatutakoaz gain, beste helburu batzuk ditu lanak, eta bi azpimarratuko nituzke: bertako emakumeen eta feminismoaren oroimen kolektiboa bistaratu eta berreskuratzea eta, bestalde, gune publikoak genero-ikuspegi feministatik aztertzea.

**- Historian eta hirigintzan ipini duzu arreta. Nola loritzen dira aipatu dituzun helburu horiek herriko historia eta hirigintza aztertuta?**



## “Zer nolako presentzia dugu emakumeok kale eta monumentuetan?”

Hirigintza historiaren materializazioa da. Kaleen izenak eta monumentuak, zertarako ipintzen dira? Pertsona batzuek egindako lana errekonozitzeko. Zer nolako presentzia dugu emakumeok Ermuko kale eta monumentuetan? Txikia, emakumeek egindako lana ez delako aintzat hartzen. Agertzen diren emakumeak erlijioari lotuta daude (Santa Ana, esaterako), beraz, oso presentzia estereotipatua dugula esan daiteke.

**- Eta horren inguruko eskerarik baduzue?**

Bai, presentzia sinbolikoa izan nahiko genuke herrian, emakumeen oroimenerako leku bat: publikoa eta irekia.

**- Apirilaren 12an lana aurkezteko jardunaldia egin zen Lobianon. Zer nolako harrera izan zuen?**

Oso ona. Espero baino hobea! Lobianoko ikus-entzunezkoen gela bete egin zen. Lanaren aurkezpenaz gain, mahai-ingurua egin genuen, eta Ermuko 4 emakumek euren esperientziak modu pertsonaletik azaldu zituzten.

**- Lehen aipatu duzu Basaurin, Ondarroan eta**

**Erreterian ere ikerketa egin duzula. Zergatik aukeratu dituzu 4 herri horiek, eta ez beste batzuk?**

Egia esan, nik ez ditut aukeratu: eurek aukeratu nautte. Basauriko eta Ondarroako berdintasun teknikariak eza-gunak ditut, teknikariak izateaz gain, militanteak ere badirelako. Ermuari buruz egindako tesia aurkeztu ondoren, nirekin jarri ziren kontaktuan, euren herrietan ere ikerketa burutzeko proposamena helaraziz. Ikerlana zabaltzen joan denez, Erreteriatik ere deitu zidaten, bertan ere gauza bera egiteko.

**- Herri horietan ere, historia eta aldarrikapen feministetan oinarritu zara?**

Ez, herri bakoitzak bere prozesua izan du. Basaurin eta Ondarroan, esaterako, historia errepasatu dugu, baina espazioetan arreta ipiniz, bi herri horietako gune ezberdinetan emakumeek izan duten pisuari erreparatuta; Erreterian, bestalde, emakumeek industrializazio prozesuari egindako ekarpena aztertu dut.

Dorleta Vidal

# AMAIA HARATEGIA



**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84

**Ermua**



Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**OSASUNA • ESTETIKA  
EDERTASUNA**



*Ile-apändegi bat  
baino gehiago!!*

 Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

**943 17 28 09 • Goienkale 12**

Artisau-pizzak • Etxeko razio eta postreak



**Etxera eramango dizugu!**

**943 17 67 74**



Ostiral eta larunbatak: 20:00-00:00 / Igandeak: 20:00-23:00

Xabat Areitioaurtena:

# “Herri txiki baten herritarrengandik gertu egon biher da”

Xabat Areitioaurtena Al-dana Mallabiko udalien zinegotzi izen da azken bi urte t'erdiz. Gernikara juen da oin bizitzen eta udaletxeo postue laga ein dau. Bere esperientzian inguruen jakin gure izen dogu.

- **Udaleko azken hauteskundietan Bilduko zerrendetan aurkeztu zinen. Zer dala-eta animau zinen?**

Zerrendak osatzeko arazo itzelak zeuzen ilegalizazi-ñuek tarteko zirela, eta hau ikusitue, 5. joatie onartu naban. Holan, Bilduk irabazi ezker zinegotzi izengo nintzen eta galduz gero ez nintzen oposozioko partaie izengo. Argi neuken zinegotzi izetekotan herrixan alde aktiboki lan egitteko zala.

- **Bokaziñoz datorkizu politikan aritzie?**

Nik ez dot euki bokaziño-rik eta gaur egun be ez dot uste deukotenik. Baine ikusi dot herri txiki baten biher dana herritarretatik gertu egotie eta herrixan alde lan

eitteko gogue eukittie dala.

- **2011ko hauteskunde horietan Bilduk lortu zittun bozka gehixen Mallebin. Zelan bizi izen zenduzan hauteskunde harek?**

Txanpan trago gazi-go-ze batekin. Sensaziño berezixe: alde batetik pozik, herrixan alde lan egingo dozuleko, ilusiño askorekin; baine bes-tetik bildurre, ez dakizuleko nun sartzen zaren eta gai izengo zaren.

- **Zer espero zendun izengo zala zinegotzi lana? Eta espero zendun hori bete da?**

Pentsatzen naban ez zala erreza izengo eta presiño as-ko egongo zala. Baiña egixe esan pentsau baino erreza-ua izen da. Udalien oso tekni-kari eta langile onak dagoz, Bilduko lan taldie be oso langillie, eta gure alkatie txapela kentzeko modukue da. Inguruen jende ona ba-dau, dana eitten da erre-za-ua.



- **Zer lan suposatzen dau Mallebin zinegotzi izetiek? Zeintzuk izen die zure betebeharrak?**

Ni Ongizate, Kontuek/Per-sonala eta Kultura/Kirola batzordeetan egon naz, bai-ña astero Bilduko taldie bil-tzen garenez beste gai asko be landu izen doguz. Zinego-tzi lana, pertsonian izaeriaz dator, langilie eta esijentie bazara... ez dau mugarik. Burue behintzet sarriten martxan, ez aspertzeko.

- **Aurrera eruen dozuzen proiektuetatik zein izen da motibagarixena edo interesantiena zure ustez?**

Baten bat aipatzekotan,

ortu ekologikoen proiektue nabarmenduko neuke. Modu eredugarri eta auzolanean erun dogu-eta aurrera. *Baserritik kalera* ekimena be politte izen da, baserritarre-kin bildu eta eurekin sal-menta zuzena sustatziana. Kiroletan, mendi-duatloie eta mendi-lasterketa aipa-tuko neukez, autofinazia-mendue oinarri hartute, zu-bi lana egittie tokau jata Udal eta herriko gaztien ar-tien. Jaixek antolatzerakuen kultur talde eta herritarre-kin nahiko ondo konektatu dogule uste dot eta idea po-littek urten dabe: Alkatetxi-ki, kuadrillen arteko jo-

**Udal Euskaltegia**  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

**Zure publizitatea:**  
**drogeteniturri**  
**aldizkarian**

943 179350 / 688 632876  
drogeten@gmail.com

**ZERMIK**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12

**MALLABIKO**  
**Herriko**  
**taberna**

Eguneko platera (3€)  
menua, bokatak,  
plater konbinatuak,  
pintxoak, kazolak,  
arraina eta txuleta  
parrillan (enkarguz)...

943 174 952  
(asteartetan itxita)



kuek, truke azoka, animala azoka, hitzaldi, antzerkixek, auzolana...

**- Zeintzuk izen die lan honen alde onak? Eta txarrak?**

Zinegotzi moduen herrixan eta gizartian funtzionamendue hobeto ezagutu dot eta asko ikesi dot, esperientzia oso positibue izen da. Txarra aipatzeko: gure legealdixe azken hamarkadetako gogorrena izen da ekonomikoki. Aldundiko diru-iturrixe gitxitu egin da, frontoie egin zaneke zorra eta Rajoiaren murrizketen artien, eskuek erdi lotute euki doguz. Eta aurrera atara nahi genduzen beste proiektu batzuk ezin izen doguz gauzatu, diru faltiagaittik.

**- Betebehar hau lagatzie erabaki zendun. Erabaki gogorra izen zan?**

Zinegotzi izetie onartu nabanien 2 urterako izen zan, Mallabixen bizi nintzen bittartien; baiña Gernikara joan nazenez bizitzera, hobeto da danontzako beste mallabitar batek hartzie kargue, distantzia kontuagaittik. Baiña ondiok Mallabixen enpadronatute nau eta Bilduko taldien lanien jarraitzen dot. Ondiok egurre emoteko prest, je je!!

**- Etorkizunien politikan jarraitzeko asmorik badaukezu?**

Esperientzia polite izen da, baiña beti mallabitarra sentiduko nazez Gernikan behintzet zinegotzi ez naz izengo, je je!! Ez dot ikusten nire burue iñungo kargu politikuetan.

Igone Amesti  
eta Ibaia Azagirre

## ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINA

UEMAK, Mankomunitateko kide diren udalekin elkarlanien, errenta aitorpena euskeraz egiteko kanpaina jarri dau martxan.

Kanpaina honen bittartez, herritarrek administraziñuakin daukezen harremanak euskeraz izatie eta administraziñue bera be euskalduntzie sustatu nahi da. Errenta aitorpena egitteko hiru modu dagoz eta guztietan erabili leike euskera, holan nahi dala besterik ez da esan biher.

Bestetik, UEMAtik adierazi dabe, errenta aitorpena euskeraz egitterakuen zailtasunik balego, eurekin harremanetan jartzeko.

AITXIXOKO MARIXELEN JAIXEK 2014

APIRILAK 30, eguaztena

20:00: Txopo jasotzie, kanpai irakotie eta txapligu jaurtiketie.

21:30: Auzo afarixe Goizeder Jaletxien. (Tiketak bertan salgai, 30 ).

MAIATZAK 1, eguena

11:00: Mezie.

Mallabiko dantza taldian saue.

12:30: Gizon probie 500Kg harrixakin.

Iñigo Aurrekoetxea, Euskal Herriko Txapeldune 80 kilotan.

Gorka de la Concepción  
Aitor de la Concepción

17:30: Asto probak:

- Zengolitagane elkartie
- Vitorio Celaya (Eibar)
- Mayora elkartie
- Lupiortu (Erandio)

## DATOZEN EKINTZAK

- Apirilak 30, 23:00ean, Josekiren kontzertua Herrikon. Izar Gorrik antolatute.

- Maiatzak 3, 23:00ean, Black Reading kontzertua Herrikon. Izar Gorrik antolatute.

- Maiatzak 8, 16:30ean, Iñaki Lasaren ipuin kontaketa saioa. Liburutegixen, Orraittiok antolatute.

- Maiatzak 24, 19:30etatik aurrera, Revolutionay Brothers, Reggae jaia Herrikon. Izar Gorrik antolatute.

## san jurkixek

MALLABIKO BERANO TXIKI AUZOKO JAIXEK 2014KO APIRILEK 26 ETA 27

**zapatue**

Setan SANTUEI KONTUEK  
ESAN ETA JANZI  
7etan TXOPUE ALTATZIE

ostien AUZUNAKUENDAKO AFARIXE

**domerie**

goixien  
11etan MEZIE

jarraixen MALLABIKO GAZTE ALAI  
DANTZA TALDIE

12:30ean BERTSOLARIXEK  
Beñat Ugartetxea  
Nerea Elustondo  
Gai-jartzaile: Unai Rodriguez

ostien UMIENTZAKO JOLASAK: Oilar  
harrapatzie, aukien jolasa,

SALDIE TA TXORIXUE DUEN


atsaldien

Setan UMIENTZAKO JOLASAK: Iapiko  
apurtzie, txokor batzie,...

6:00etan HERRI KIROLAK

Zelai eta Bihurri

7:00etan AGARRERA OSTERIE  
denbora mugatuan (6 urtetik 12  
eta helduak)... Irabazientzad  
sarixe



laguntzaile: Mallabiko Udal  
Iai Batzorde ez da onartu dantzaren kalte karu etben



**ZUZENBIDE  
KONTUAK**

Lege eta  
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

Iberikoetan  
espezialistak

*Mayte*

Denda  
berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412



Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

- Teak, kafeak eta ezta.
- Belgiako txokolatea.
- Eguneko tea eta gozokiak dastagarri.
- Teontziak, katiluak...

**Oparitzeko  
neurria  
egindako otzarak!**



**GOIENKALE Z/G  
ERMUA**  
Tel. 943 030 112

**MERKATU PLAZA 7  
ARRASATE**  
Tel. 943 770 598

**Idurre Albizu, coach:**

## “Coaching-ak gure bizitza aldatzeko erremintak ematen dizkigu”

Idurre Albizuk coaching bulegoa zabaldu berri du Eibarren, Calbeton kaleko 4. peorako 3. solairuan. Leku eroso da, argitsua, lasaitasunez hitz egiteko giroan murgiltzen duena. Bertan, arlo pertsonalean zein profesionalean oreka aurkitzen lagunduko digu Idurrek, baita proiektu pertsonalak diseinatzen eta horiek aurrera eramateko prozesuak eraikitzen ere.

**- Nola lagundu diezaguke coaching-ak?**

Coaching-ak arlo pertsonalean zein profesionalean erabilera izugarria du. Kasu askotan gertatzen da, esaterako, lana, umeak eta bizitza pertsonala orekan ipini nahi ditugula; hala ere, ez dugu denborarik gure bizitza nola antolatu nahi dugun pentsatu eta argitzeko. Denboraz gain, ohitura eta metodologia beharko genuke. Izan ere, gure hezkuntza ereduak ez gaituzte prestatzen proiektu pertsonal bat antolatzeko eta hori aurrera eramateko prozesu bat eraikitzeko. Coaching-ak, ordea, erreminta horiek ematen dizkigu.

**- Egunerokotasunak gure bizitzaren norabideaz jabetzeko aukera gutxi ematen digu?**

Bai, eta gainera batzuetan erosoagoa da geure buruari horrelako galderak ez egitea, lana eskatzen digulako eta zenbait kasutan mingarri suerta daitekeelako. Kontua da, kasu askotan, 35 edo 40 urte betetzerakoan, ez dakigula nora goazen, zeintzuk diren gure lehentasunak, zerk egiten gaituen zoriontsu...

**- Eta guztiok izan nahi dugu zoriontsu, ezta?**

Bai, baina badirudi zoriontasunak eta helburuak lortzeak, zorte on edo txarrekin zerikusia dutela, eta guk gutxi egin dezakegula aldatu ahal izateko: “Aspaldi nabil kirola egin nahian, baina ez dut denborarik ateratzen”, “urteak daramatzat hau edo hori ikasi nahian, baina ez dago modurik, nik ezin dut, ez dut balio”, “gustatuko litzaidake hau egitea, baina...”. Gauza guzti horiek ez dira bakarrik aldatzen, norberak du aukera eta gai da egun bakoitza nahi bezalakoa izateko. Norbera da bere bizitzan gertatzen denaren jabe, edo behintzat, bere sentimenduei eragingo dieten erabakien arduradun eta gidari.

**- Zer gertatzen da arlo profesionalean?**

Gauza bertsua: “Nire lankidearekin ez dut erlazio ona, eta arazoa berea da”, “ezin dut nire nagusia jasan”, “nire lanak ez nau motibatzen, ez dut nahi astelehena heltzea”. Baina gure lana, gure bizitzako beste edozein arlo bezala, gure esku dago, guk erabaki de-



zakegu nolako erlazioa izan gure lankide, nagusi edo lankidearekin. Gu aldatzen bagoaz, ingurua aldatzen doa.

**- Coach-ak psikologoarekin zerikusirik badu?**

Zerikusia bai, coaching-ak psikologiatik hartzen dituelako ikasgai batzuk, baina coaching-ak ez ditu gaixotasunak tratatzen: pertsona osasuntsuekin lan egiten du. Momentu jakin batean laguntza behar dutenekin, edota aldaketa bati aurre egin nahi dioten pertsonekin.

**- Egiten dituzun saioetan, aholkuak ematen dituzu?**

Ez, nik ez dut ez aholkurik ez iritzirik ematen: galderak egiten ditut eta, horien birtartez, jendeak barruan duena astintzen dut. Lortu nahi den helburura egokitzen den prozesua bideratzen dut.

**- Coaching-a modan dagoela esan daiteke?**

Coaching-a ez da moda bat, ez da orain hasitako zerbait, urteak daramatza jende askoren bizitza aldatzen, eta espero dut urte asko bide honetatik jarraitu ahal izatea.



# Coaching Euskadi

Coaching Pertsonala, Exekutiboa eta Taldekoa

943 53 04 37 • i.albizu@coachingeuskadi.com



**Ignacio  
Zuloaga  
Institutua**

**EIBAR**



**Ate irekien eguna**

**Apirilak 30**

**Ordua 18:00**

**Batxilergoak:** Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



**Elkartrukeak**



**Alemania - Ingalaterra**



Jardiñeta 3 Eibar · Tel.:943208349 · Fax:943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail:012055aa@hezkuntza.net

**IES UNIBHI**  
EIBAR-ERMUA

**HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK**

**PROIEKTUAK ETA JARDUERAK**

Nazioarteko ikasle-trukeak

UNI Encounter

Hizkuntzaren normalkuntza

Osasunarentzako programa

Urrats Bat

Agenda 21

Informatika ingelesez

**AURREMATRIKULA:  
MAIATZAREN 5ETIK 15ERA**

**ATE IREKIEN JARDUNALDIAK**

**MAIATZAREN 10EAN**

**11:00ETATIK 13:00ETARA**

**BATXILERGOAK**

Zientzia eta Teknologia

Humanitateak eta Gizarte Zientziak

Aukerako ikasgaien aukera zabalena

**AUKERA ZABALENA!**

TEL: 943 20 84 44  
www.iesunibhi.com  
uni@iesunibhi.com

twitter @UniEibarErmua  
www.facebook.com/iesunibhi

# Dangiliske taldeak joko du apirileko Ermuan Kantuan-en

Basauriko Dangiliske plaza dantza taldeak alaituko du apirilaren 26an, 12:30ean izango den Ermuan Kantuan. Alboka, txirula, pandero eta gitarrarekin arituko dira Dangiliskekoak Ermuan eta parte hartu nahi duten kantu-zale guztiak gonbidatuta daude.

**E**rromeriak eta euskal karaokeak egiten esperientzia handia du Basauriko Dangiliske taldeak. Hori dela eta, egin dio Euskal Birusa Elkarteak apirileko Ermuan Kantuan-en parte hartzeko gonbidapena. Sei lagunek osatzen dute taldea, eta horietatik 3 etorriko dira Ermura: alboka, txirula, gitarra eta panderoarekin, he-

rriko kaleak alaitzera. Taldeko kidea den Roberto Awa Narik azaltzen duenez, horrelako ekimenetan parte hartzen dute sarri. Horrez gain, astero erromeria eta euskal karaoke bana ere egiten dutela dio.

Ekitaldia 12:30ean hasiko da, plazatik irtenda, eta ordu t'erdiz, gutxi gora behera, Zubiaurren gora eta behera ibiliko dira.



## VIII. Irakurri, Gozatu eta Oparitu ekimena martxan dago jada

Beste alde batetik, aurtengo Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpainari hasiera eman diote Ermuko Euskal Birusak eta Mallabiko Orraittio euskara elkarteak. Apirilaren 23an hasita —Liburuaren Nazioarteko Egunean— eta ekainaren 30a bitartean, udal liburutegietara joan, euskarazko liburuak maileguan hartu eta, itzultzerakotan, euskarazko liburuak eros- teko deskontu-txartela jasoko du irakurleak: %25eko deskontua irakurleek oro har eta %50ekoa Euskal Birusa edo Orraittioko kideek. Liburuok Ermuko Maribel eta Xiripot liburu-dendetan eta Durangoko Hitza liburu-dendan erosi ahal izango dira.

Euskaltzaleen Topaguneak sustatutako egitasmo honen 8. edizioa burutuko da aurtengo eta bere helburuak dira irakurzaletasuna bultzatzea, li-



teraturarekin gozatzea eta gozaraztea, irakurtzeak eta oparitzeak (zein opariak jasotzeak) dakarten gozamenaren bidez. Ermuko Udaleko Euskara Saila, Ermua eta Mallabiko Udal Liburutegiak, Bizkai-ko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza dira ekimen honen babesleak. Mallabiko Markina-Learreta eskolaren laguntza ere badu egitasmoak.



**Makina Erremintaren Institutua**  
Instituto de Máquina Herramienta



**IMHn, maiatzaren 24an, 11:00etan**  
**Informazio Saioa**



**Ingeniaritza DUALA**  
UNIBERTSITATE ESKOLA

etortzeko deitu 943744132ra / [www.imh.es](http://www.imh.es)

**DBH Ondoren?**  
**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**  
(2 urte) eta ondoren lanera edo goi maila ikasten jarraitu...

**BATXILERGOA Amaitzean? GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**  
(2 urte) eta lanera edo ikasten jarraitu...

.. goi-mailako **Heziketa Zikloa** amaitu ondoren edo Batxilergoaren ondoren: **INGENIARITZA DUALA**  
(4 urte) ikasi eta lan alternantzian

**Erdi-maila**

- Mekanizazioa
- Mantenu Elektromekanikoa

**Goi-maila (DUALA ERE: 2. mailan)**

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika industriala

**GRADU DUALA**

- Prozesu eta Produktu Berrikuntzan Ingeniaritza

**Batxilergorako Eskaintza (A eta D)  
2014-2015**

**Zientziak eta Teknologia  
Giza eta Gizarte Zientziak**



943 12 16 98  
[azitain@lasalle.es](mailto:azitain@lasalle.es)

## BERTSO-ESKOLA TAILERRA ANTOLATU DU EMAKUMEAREN TOPALEKUAK

Maiatzaren 17, 24 eta 31n bertso-tailerra egingo da Ermuan, Uxue Alberdi bertsolariak gidatuta. 12 orduko iraupena izango du ikastaroak, 3 larunbatean banatuta, 10:00etatik 14:00ak arte. Interesa dutenek Emakumeen Topalekuan eman beharko dute izena (Izelaieta kalean edo 943 17 10 30 telefonoan), 5 euroren truke. "Tailer honetan bertsoaren eta bertsogintzaren inguruko gogoeta sortu nahi da, ikuspuntu feministatik, beste bertsogintza-eredu posible batzuk irudikatzeke. (...). Teoria, jolasa eta solasa uztartuko ditugu giro goxoan, eta... ez dugu bertsotan egingo!", azpimarratzen du Alberdik. Beste alde batetik, maiatzaren 15etik ekainaren 19ra, masaje-tailerra antolatuko da.

## Koldo Mitxelena Zumaran hil da

Eibarko *eta kitto!*-ko koordinatzailea zen Koldo Mitxelena Zumaran apirilaren 1ean hil zen. *Drogeteniturri* aldizkarian 8 urtez aritu zen lanean. 2000. urtean hasi zen hila-betekaria maketatzen, aldizkaria kinka larrian zegoela, desagertzeaz. Ordutik gaur egun arte hilero ikusi du argia kale egin gabe *Drogeteniturrik*. Bertoko lan taldeak esker-rak eman nahi dizkizu proiektu hau aurrera ateratzen laguntzearren. Zuk ereindako haziak hemen dirau. Adiorik ez.



## Graxi Arregi BBKko bertso lehiaketan irabazle

Pasa den martxoaren 28an jokatu zen Bertsolari Gazteen XXII. BBK sarietaren finala. Taldeen arteko lehia honetan, 2 mailatan banatzen dira bertsolariak: 18 urtez beherakoa eta 23 urtez beherakoa. Guztira zazpi eskualdek parte hartu zuten: Arratia, Bilboaldea, Busturialdea, Durangaldea, Enkarterri, Ipar-Urbe eta Lea-Artibai. Finala Arratia eta Lea-Artibaiko taldeek jokatu zuten eta Lea-Artibaiko taldea gailendu zen. Eskualde horretako gaztetxoek taldean Ermua eta Mallabian haurtzaroko urte dezente pasa zituen Graxi Arregi Leonardo aritu zen.



## IZEN EMATE EPEA ZABALIK Maiatzaren 5etik 14ra, 0 eta 2 urte bitarteko umeentzat Irailean, urrian eta azaroan hasteko



**ATE IREKIAK:**  
Maiatzaren 5ean  
eta 12an  
(18:30ean)

**Hurrengo matrikulak:**

**URRIAN:** abenduan, urtarrilean edo otsailean hasteko.

**URTARRILEAN:** martxoan, apirilean, maiatzean edo ekainean hasteko.

**ERMUKO HAURRESKOLA**  
Iparragirre, 15 (Antzoki parean)  
943 17 64 31  
[ermua.ermua@haurreskolak.net](mailto:ermua.ermua@haurreskolak.net)

**Haurreskolak**

[www.haurreskolak.net](http://www.haurreskolak.net)

## Eskolabarrik hainbat ekimen burutu ditu



Heziketarako XIII. Mintegia antolatu du Eskolabarrik apirilean, *Inteligentziaz hezi: moduak eta arauak*. "Apirilaren 3an, Lobianon izan zen hitzaldian emozioetan hezteak duen garrantzia azpimarratu zuen Juan Carlos Martinek, Inteligentzia Emozionalean masterra duen psikologoak —diote Eskolabarritik—. Apirilaren 5ean, berriz, guraso, ikasle eta irakasle zein langileentzako Gardner-en 7 inteligen-

tzietan oinarritutako 7 tailer antolatu ziren. Guraso, ikasle eta irakasleek elkarrekin esperientzia aberasgarria bizitzeko aukera izan zutelarik". Beste alde batetik, WWF natura zaintzeko nazioarteko elkarteak egindako Planetaren Ordua 2014 deialdiari atxikitzeko eta horrekin bat egiteko proposamena luzatu zion Eskolabarrik Udalari: ordu betez udaletxeko argiak itzali ziren, martxoaren 29an, 20:30etik 21:30era. Gainera, apirilaren 4an, ostirala, deialdiarekin bat egiteko Santa Anako parkean bildu ziren ikasleak, eskola ordubetez argi barik mantenduz. Klima aldaketaren aurrean arduratsu jokatzera eta aldarrikatzera zen helburua.



## XXII. Liburu eta Disko Azoka maiatzean izango da

Maiatzaren 8tik 11ra bitartean egingo da aurtengo Euskal Liburu eta Disko Azoka. Ostegun eta ostiralean (hilak 8 eta 9), 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era egongo da azoka zabalik; larunbata eta igandean (hilak 10 eta 11), berriz, 11:30etik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara. Maiatzaren 7an, asteazkena, Badihardugu Elkarteak sortu berri duen *Ermuko Aditz-taulak* liburuaren aurkezpena egingo da Haur Liburutegian (19:00etan). Euskal Biruseko bazkideek liburu honen ale bana jasoko dute (elkarteko postuan eskatu beharko da). Hilaren 9an ipuin kontalaria egongo da plazan (18:00etan) eta hilaren 10ean, umeentzako tailerrak egingo dira bertan 12:00etan hasita. Domekan, hilak 11, bertso saioa eskainiko dute Nerea Ibarzabal, Unai Agirre eta Mikel Arrillaga bertsolariak plazan eta astelehenean (hilak 12) Markos Gimenez liburuaren aurkezpena egingo da Lobianon, 131AZA (19:00etan). Maiatzaren 15ean (osteguna), Itziarren semeak taldearekin solasaldia egingo da Lobianon, 19:00etan. Azkenik, oraindik zehaztu gabe dagoen egunean, Kirmen Uribe idazleak Ezekiel Etxebarria saria jasoko du, *Mussche* eleberria idaztegitik. Euskara Sailak antolatutako ekimena da hau, Euskal Birusa, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

## KULTURA SAILAK JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA DEITU DU

Santixau jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa martxan dago. Parte hartu nahi dutenek, ekainaren 12a baino lehen eraman behar dute euren proposamena Abiapuntura, eta irabazleak 600 euro eskuratuko ditu. Lehiaketaren oinarriak Udalaren webgunean ikus daitezke.

## HERRITAR ASKOK PARTE HARTU ZUEN URAREN FAKTURAREN KONTRAKO MANIFESTAZIOAN

Uraren faktura berriak eragindako haserre delatzen eta, manifestazioa deitu zuen Ermuko bizilagun talde batek apirilaren 10erako. Manifestazioa jendetsua izan zen arren, ez dago argi zenbat ermuarrek parte hartu zuten: Udalaren arabera 900 lagun bildu ziren; antolatzaileen hitzetan, berriz, 3.000 inguru. Kontuak kontu, Udalak hainbat komunikabideetan iragarri du aldatzeko egingo dituela ura kobratzeko ezarri duen eredu berria eta Gipuzkoako Ur Partzuergoaren parte hartzea eskatuko duela.



PUB YOMY

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

Proba-Leku

*Ileapaindegia - Estetika*



Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



URRETA

burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolaia
- \* Rielak
- \* Giltzak
- \* Zerrailgintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Pub Dakota



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

# EDURNE ALTUNA

- Zer egiten zenuen gaztaroan?

Txikitan azken momentu-  
ra arte egoten nintzen kale-  
an. Selektibitatea egin eta  
gero, juergaz juerga ibiltzen  
ginen. "Hurrengo astebu-  
ruan etxean" esaten ge-  
nuen, baina asteburua heldu  
eta kalera irteten ginen be-  
rriz ere.

- Ikasketarik?

Batxilergo zientifikoa egin  
nuen, eta gero Haur Hezkun-  
tza ikasi nuen Donostian.

- Noiz hasi zinen lanean?

Baja bat egiten hasi nin-  
tzen Eskolabarrin, urte bete  
lan egin gabe egon nintzen  
gero, eta hamar urte dara-  
matzat bertan.

- Zein ordutegi duzu?

Umeak bederatzietan da-  
tozenez, gu lehenago joaten  
gara gauzak prestatuta iza-  
teko. Eguerdian etxera goaz  
bazkaltzera, eta arratsalde-  
an ordu bi t'erdietatik seiak  
arte egoten gara, ostirale-  
tan izan ezik.

- Zer da zure lanaz gehien  
estimaten duzuna?

Ermuan lan egiteak gehia-  
go du onetik, txarretik bai-  
no. Bazkaltzera etxera noa,  
ez dut kotxea hartzearen  
beharrik, ekainean eta irai-  
lean goizean bakarrik goaz  
eskolara, eta oso ondo dago  
hori!

- Lanak alde txarrik badu?

Altzatzea kostatu egiten  
da beti, baina behin han  
egonda umeak gustatzen  
zaizkidanez, gustura nago!

- Egun guztiak berdinak al  
dira?



33 urteko ermuarra da Edurne Altuna. Bi ahizpa eta neba bakarra du, eta bera da gazteena. 2003an hasi zen Eskolabarrin ikastetxean lanean, eta lau zapabost urteko umeen irakaslea da egun.

Eskolan egun batzuk ez-  
berdinak dira, umeekin zein  
ekintza egiten dugun, hor-  
ren arabera... San Blas egu-  
na, adibidez, oso ezberdina  
da.

- Zein osagai behar ditu  
irakasle on batek?

Pazientzia eduki behar du,  
eta mugak jarri behar ditu,  
umearen hobe beharrez.

- Umeek...

Beti daude besarkada bat  
emateko prest, irribarrea  
ateratzen didate, baina ha-  
serrarazi ere.

- Erraz haserretzen zara?

Momentuaren arabera.

- Zer egiten duzu burua  
lasaitzeko?

Gimnasia joan, ibili,  
irakurri...

- Liburu aipagarririk...

Los pilares de la tierra.

- Zer iruditzen zaizu pil-  
pilean dagoen "8 apellidos  
vascos" pelikula?

Ez neukan pelikula ikusteko  
gogo handirik, animatu nindu-  
ten. Asko gustatu zitzaidan,  
baina ez nuen horrenbeste  
barrerik egin. Barre egitea  
kostatzen zaidalako niri!

- Biziorik baduzu?

Pintxoak jatea!

- Mendia ala hondartza?

Hondartza.

- Uda ala negua?

Uda. Beti hotza daukat, eta  
eguzkiak pizten nau, poztu.

- Zein txoko azpimarratu-  
ko zenituzke?

Portugal, Lekeitio, Munda-  
ka... Kostaldeko herri txi-  
kiak!

- Nora bidaiatuko zenuke?

Hego Amerikara: Argenti-  
na, Peru...

- Nola definituko zenuke  
zure burua?

Burugogorra naiz arrazoa  
dudala pentsatzen badut.  
Dudatan baldin banago or-  
dea, ez dut horrenbeste ez-  
tabaidatzen.

- Oroitzapen bat...

Amamarekin kartetan jo-  
lastea.

- Zein da eguneko unerik  
hoberena?

Afalostean sofán esertzean.

- Zein seriek erakartzen  
zaitu?

Mediku serieek gehien  
bat: *Anatomía de Grey, Ur-  
gencias, Castle...*

- Jateko gogokorik?

Afaltzeko, arrautzak pata-  
ta eta tomatearekin! Oso ha-  
ragi zalea naiz: bildotsa, txu-  
leta... Arraina justu-justu!

- Zerk eragiten dizu  
barrea?

Umeen gauzek, eta euren  
burutazioek.

- Zer miresten duzu per-  
tsona batengan?

Momentu txarretan zu-  
retzako irribarrea izatea.

- Zer falta da herrian?

Aparkalekuak.

- Bizitzako egunik zorion-  
tsuena...

Lana lortu nuenean oso  
garrantzitsua izan zen nire-  
tzat.

Leire Elustondo



**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



# Ermuko 7 ordezkari lehiatu dira Aragoiko Taekwondo txapelketan

Luana Gallardo, Uxue Corrales, Araitx Prieto, Julen Garcia, Agustin Wals eta Henar Santin gaztetxoek parte hartu dute Nazioarteko VIII. Open ITF Aragoi Txapelketan. Martxoaren 22an burutu zen, Zaragozan, eta bertaraino joan ziren Eneko Cabello, helduen kategorian parte hartzeko, eta guztien entrenatzailea den Christian Lassalle argentinarra ere.

**M**undu osoko taekwondo kirolariak bildu ziren martxoan Zaragozan; tartean, Ermuko 6 ume aritu ziren, 5 eta 13 urte bitartekoak, Euskadiko eskolen ordezkari bezala. ITF taekwondo espezialitatean jardun zuten guztiek (hau da, modalitate ez olinpikoan), eta lehiatzeko, kategoria eta, batez ere, adina eta pisuaren arabera banatu zituzten.

Ohi den moduan, txapelketak bi zati izan zituen: formak eta borroka. Mugimendu koreografikoak dira formak,

eta gerriko bakoitzari forma jakin batzuk dagozkio. Defentsa eta erasoz osatutako koreografia da eta berau erakutsiz, aurkariarekin lehiatu behar da: zeinek egiten duen indar handiagorekin, posizio egokiarekin... Bestalde, borroka dago. "Umeekin kontuz ibiltzen gara, minik har ez dezaten —dio Christian Lassalle entrenatzaileak—. Horregatik, ostikadak eta ukabilkadak ematen dituztenean, zigortu egiten ditugu: keinuak baino ez dituzte egin behar".

Ermuaren artean, Luana Gallardok (bigarrena formetan) eta Agustin Walsek (hirugarren sailkatua borrokan) lortu zituzten emaitzarik onenak. Helduen kategorian, berriz, Eneko Cabello ermuarrak bigarren postua lortu zuen borrokan. Txapelketa batean parte hartzen zuten hirugarren aldia zen



eta, entrenatzailearen hitzetan, polito ibili ohi da.

## Kirol baketsua

Christian Lassalle duela bi urte eta erdi hasi zen taekwondo klaseak Ermuan ematen. Bigarren dan-a du berak, hau da, 2. mailako gerriko beltza (guztira 9 dan dira) eta, batzuek pentsa dezaketenaren kontra, kirol lasaia da taekwondo. "Koreatik datorren diziplina honek 5 oinarri ditu: kortesia, zintzotasuna, pertseberantzia, auto-kontrola eta espiritu menderakaitza —dio entrenatzaile-

ak—. Lehen klasean azaltzen dira kontu horiek, eta, norbait harrotxo jarrerarekin datorrela ikusten badut, ez diot klaserik ematen".

Izan ere, taekwondoa egin nahi dutenek lanerako prest egon beharko dute: indarra, erreflexuak, distantziak, taktikak eta borrokarako estrategiak landu beharko dituztelako, besteak beste. Gainera, gerrikoek maila adierazten dute eta, maila batekin bestera pasatzeko, azterketak egin behar dira: bai teoriakoak, bai praktikoak.



**OUTUMURO**  
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia **TE eta INFUSIOETAN**

*Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu*

  
**Montis DQ Mouth**

 **san pelayo**  
clínica dental hartz klinika

San Pelayo 5, 1º  
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

 **LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

**ONAINDIA**  
**HARATEGIA**

**Etxean egindako odoloste eta txorizoak**



Kantabria zeharbidea 1  
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44  
Mug. 678 64 85 41

## Uraren faktura

**A**spalditik iruditzen zitzai-  
gun uraren faktura bide-  
gabea zela, eta azkenik  
tasa berriak iritsi dira...  
baita lurrikara ere!

Ez zen bidezkoa kontsumitzen  
ez genuen ur kopuruagatik or-  
daintzea, beraz, arrazoizkoa zirudien  
kontsumoaren arabera tasa  
berriak zuzenagoak izango zi-  
rela. Gainera, kobratze-modu be-  
rri horrek kontsumo arduratsua  
sustatzen du.

Hala ere, tasa berri horiek ingu-  
ruko herrietan dituztenak baino  
altuagoak dira. Hori dela-eta, er-  
muar gehienek euren buruari gal-  
detzen dihardute zergatik gurean  
ez diren aplikatzen Gipuzkoako Ur  
Partzuergoaren tasak.

Udal honek zorte handia du:  
pertsone askok -hau da, konpro-  
metitutako ermuarrez osatutako  
taldeek- euren denbora eta aha-

leginak eskaintzen dituztelako  
gure herriaren alderdi asko hobe-  
tzeko ideiak proposatzera.

Dena den, ahalegin guzti horiek  
ez dute balio izan uraren auzian  
Udalak era bateko edo besteko  
erabakia hartzeko. Izan ere, er-  
muarrez osatutako beste talde  
batek deitutako manifestazioak  
eragin du Udalak aurretik defen-  
datzen zuen jarrera baztertu eta  
beste ikuspuntu batzuk bilatzen  
hastea: badirudi Udalak tasak  
jaitea proposatuko duela eta bai-  
ta Gipuzkoako Ur Partzuergoaren  
parte hartzea eskatu ere. Puntu  
horretan, espero dut agintariak  
behar bezain sentiberak izatea  
baliabide gutxi dituzten familie-  
kin.

Kezkagarria iruditzen zait toki-  
administrazioak manifestazio-kol-  
pera erabakiak hartzea, aspaldi-  
danik eta hainbat talde eta plata-



*Ana Gómez*

formetatik gaia sakonki aztertzea  
beharrezkoa zela esaten ari gine-  
la jakinda.

Alderdi ekonomikoa alde bate-  
ra utziz, informazio-kanpaina  
eraginkorra egitea falta da: ura-  
ren zikloak nola funtzionatzen  
duen eta zertara bideratzen den  
fakturaren kontzeptu bakoitza  
azaltzen duena, adibidez. Bes-  
talde, sentsibilizazio-kanpaina  
egitea beharrezkoa da, ura zen-  
tuz erabili behar dela azpima-  
rratzen duena -gero eta baliabi-  
de urriagoa baita-, eta nabar-  
mentzen duena horren agresiboak  
ez diren produktuak erabili  
behar ditugula, uretara bota be-  
har baditugu.

**Kezkagarria iruditzen zait toki-  
administrazioak manifestazio-  
kolpera erabakiak hartzea**



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es



**ILEAPAINDEGIA**  
*Izaskun*  
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17 66 90

**ILEAPAINDEGIA**

**solozabal**  
**tabakoak**

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33




**D. ARRAL 97 S.L.**  
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892  
arral@arral97.com  
www.arral97.com

**Ardo banatzailea:**  
Luis Cañas  
Cantosán Verdejo  
Viña 65 Verdejo  
Amaren  
Añada Real  
Cava Oriol Rosell  
Nitida  
Montepinos

**LAN BILA**

Astelehenetik ostiralera bitarteko lana bilatzen dut. Esperientzia dut adinekoak zaintzen, sukaldari-laguntzaile eta okindegi-laguntzaile bezala. © 631 20 32 87

Mutil gazteak lana bilatzen du. Esperientzia handia daukat gizon nagusiak zaintzen eta sukaldari-laguntzaile moduan. © 631 50 61 08



Apirilaren 27an  
Zorionak Maitexu. Ondo-ondo pasa zure eguna. Patxo handi bat Ainhoa, ama eta aitaren partez.



Apirilaren 16an  
Zorionak June, ondo pasa eta muxu handi bana zeure lehengusinen eta etxeko guztion partez. Txintxoa izan!!



Koldo (apirilaren 1ean)  
eta June (apirilaren 7an)  
Zorionak bioi familia osoaren partez. Jarraitu alai eta jator izaten!



Maiatzaren 1ean  
Zorionak Galder, txintxo portatu bestela ez dago erregalorik. Ondo pasa. Muxu handi bat!!



Apirilaren 26an  
Zorionak etxeko erregeari, Oihan!! 5 urte jada! Musu itzela aita eta amaren partez. Asko maite zaitugu!!



Maiatzaren 1ean  
Zorionak Mara!! Muxu handi bat etxekoen partez.



Apirilaren 8an  
Zorionak txapel-duna, bost urte bete dituzu jada. Besarkada eta musu potolo bat zure familiaren partez.



Apirilaren 21ean  
Espero dut aurren motorra apur bat handiagoa izatea. Zorionak Josemonen partez. Egun ona pasa. Musutxoak.



Maiatzaren 21ean  
Zorionak Arantza, musu handi bat Mikel eta etxeko guztion partez. Ondo pasa eguna!



Apirilaren 25ean  
Zorionak Alejandro familia guztiaren partez. Eskerrik asko gure semetxoa izateagatik!



Martxoaren 22an  
Zorionak Txindurriko dantzari txikiei! Martxoko egun euritsu honetan debuta egin zuten taldeko gaztetxoenek, hasi aurretiko urduritasuntxo tarte eta plaza bete begien aurrean. 50 bat urte barru-edo, argazki honi begiratuta, dantzarekin hasierako honetan beste disfrutatzen jarraitzea opa diegu!

**Hurrengo zenbakirako azken eguna: MAIATZAREN 19a**

hamburguesería  
**TITANIK**

*Pintxo dastaketa poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

optika  
**ITZE**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

**MUGA** **KIROLAK**

San Pelaio 4A behea  
Telefonoa: 17 64 77  
ERMUA

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak,  
telebistak, bideoak,  
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**T** XALAPARTA ABERNA

**Etan asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

## MALLABIA 1963

Argazki hau 1962-1963koa da. Mallabixen jaunartzea ospatzen.

Bertan agertzen dira:

Luis Mari Unzueta, Juan Angel Mugarza, Juan Luis Mugarza, Sabino Olano, Rikardo Bastida, Antonio Amesti, Juanito Ruiz, Jabier Txurruka, Juan Luis Agirre, Lourdes Biritxinaga, Arantxa Gallastegi, Begoña Mugarza, Rosi Aranburu, Mari Asun Aranburu, Pili Garitagoitia eta Maria Rosario de Celix.



## ERMUA 1953



José López 1953an etorri zen Ermura. Bera Santanderrekoa da. Izozki- eta gozoki-saltzailer tradiziozko familia batekoa izaki (senide ditu Deba eta Lekeitioko heladeru famatuak), bere emazte Delfisa López lagun hartuta, laster jarri zen litxarrerria eta jostailuak saltzen: hasieran karrotxo batekin eliz aurreko arkupeetan, gerora bertan ere postu handiagoan eta urteetara Erdiko kaletik plazarako eskaileren ondoko kiosko ederrean. Neguan gaztainak erre eta saltzen zituen eta Nieves alabak ere horretan dihardu, Zubiaurre kalera gaztaina errean usain epela zabalduz neguko iluntze luze eta hotzetan.

Arkupeetan, atzeko ilaran erretraturako jarrita Delfisa, Manu semea eta José Rodríguez. Aurrekoan Loli eta Elu García ahizpak, Dori eta Nieves López etxeko alabak eta Carolina Cruz laguna.

### KOLDO MITXELENA ZUMARAN (2014 apirilaren 1ean)

*Zuk ereindako haziak hemen dirau.  
Adiorik ez*

**DROGETENITTURRIKO LAN TALDEA**



**Uraren fakturak gora egin du Ermuan. Izan ere, Udalak ibaiaren arazketagatik 800.000 euro ordaindu beharko ditu urtero hemendik aurrera eta 300.000 euro berreskuratzeko asmoarekin, arazketa kontzeptua gehitu zaio ur, zakar eta estolden fakturari.**

**Zer uste duzu uraren fakturaren igoerari buruz? Protestetan parte hartuko duzu?**

Ines Arano



Nire ustez gauza gehiago eta larriagoak daude Ermuan eta jendea ez da hainbeste kexatzen, nabaritzen da zeri ematen zaion indarra medioetatik eta zeri ez. Ura dugun arazetatik txikienetakoa da: kiroldegiaren gaia, saihebidearna, zuntz optikoaren iruzurra eta Izarra Zentroa, adibidez, bururatzen zaizkit, nire ustez garrantzitsuagoak direnak.

**Unai Zebrian, 29 urte**



Protestetan ez dut parte hartuko, baina ez zait ondo iruditzen. Nire ustez denok ordaindu ahal izateko modukoa izan beharko litzateke uraren prezioa, eta berdina denontzat aurrez erabakitako gehiegizko kantitatara heldu arte; hortik aurrera gehiegikeriaz xahutzen dutenek gehiago ordaintzeari ongi deritzo.

**Lorea Aguirregomezcorta, 55 urte**



Ermuan ez dugu hori ordaindu behar, beste herrialde batzuetan ez bada ordaintzen, ze gainera orain krisiarekin, jendea oso egoera txarrean dago eta hori ez datorkio inori ondo. Bestalde, orain arteko protestetan parte hartu dut eta parte hartuko dut gerokotetan ere.

**Nerea Rubio, 17 urte**



Ez dut protestetan parte hartuko. Nire ustez uraren prezioa garestia da baina ez da dugun arazo bakarra. Kotxeen udalzerga, adibidez, oso garestia da eta inor ez da balkoietara ateratzen kexatzera. Uraren prezioa altua da baina beste gauza batzuegatik ere kexatu beharko ginateke.

**Jose Angel Benito, 51 urte**



Urak herri honetan duen prezioarekin, ona izango da, ezta?

**ZINEA**

3tik 5era  
 10tik 12ra  
 17tik 19ra  
 24tik 26ra  
 Hainbat film eta ordutegi.  
 Ermua Antzokian.

**ZINE-KLUBA**

Hilak 1  
 Hilak 8  
 Hilak 15  
 Hilak 22  
 Hilak 29  
 Hainbat film.  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.

**UMEENTZAKO ZINEA**

Hilak 4  
 Hilak 11  
 Hilak 18  
 Hilak 25  
 Hainbat film.  
 17:00etan.  
 Ermua Antzokian.

**MUSIKA**

**Hilak 16:**  
 Pre-Vértigo Rock:  
 Stai Zitto + Pepe Botika.  
 19:00etatik aurrera.  
 Plazan.



**Hilak 17:**  
 Vértigo Rock:  
 Sin aliento, Orion Child,  
 Black Redding, Orihen,  
 Porco Bravo eta  
 Reincidentes.  
 17:00etatik aurrera.  
 Plazan.



**Hilak 30:**  
 Kontzertua:  
 "Los Panchos-en oroime-  
 nez". Trío Medianoche  
 + Voces y cuerdas.  
 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 8€

**ANTZERKIA**

**Hilak 9:**  
 "Full Monty", Txin-Txaun  
 Kolektiboaren eskutik  
 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 8€

**Hilak 16:**  
 "Cabaret Chihuahua",  
 Teatro Mutantearen  
 eskutik. 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 10€



**Hilak 23:**  
 "La bodeguilla", Gora  
 eta Gora taldearen  
 eskutik. 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 15era arte:**  
 Margoa: Sara Beiztegi  
 eta Juan José Altuna.

**Hilaren 18tik 12ra:**  
 Egurrezko eskulturak:  
 Davi López Simón.  
 18:00etatik  
 20:00etara.  
 Lobiano Kultur Gunean.

**BESTELAKOAK**

**Hilaren 8tik 11ra:**  
 Euskal Liburu eta Disko  
 Azoka: hainbat ekitaldi.  
 Plazan.



**Hilaren 19tik 25era:**  
 Galiziako letrei buruzko  
 jardunaldiak:  
 hainbat ekitaldi.

**Hilaren 23tik 1era:**  
 Gaztela- La Mantxako  
 kultur astea:  
 hainbat ekitaldi.

**Hilak 31:**  
 Kultur arteko jaialdia:  
 hainbat ekitaldi.  
 11:00etatik aurrera.  
 Plazan.

Patxi López

**TXINDURRI  
 TALDEA  
 Tokian  
 tokiko**

**PRO**

- ARRAINDEGIA  
 - ITSASKIAK  
 - ARRAIN FRESKOAK ETA  
 IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA  
 OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
 Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
 " 17 24 33 (etxea)  
 Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
 ERMUA

**Infreñu  
 Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
 943 174584  
 www.infretaberna.com

**ALBOKA**

**MUSIKA  
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

**NIRE ETXEA PREST  
BARRUAN ETA KANPOAN**

**APIRILAREN 27RA ARTE.**

**AKI**

*Brikolaje erraza*

~~€49,95~~

**€36,95**

**-%26**



**Mahai Tolesgarria PVC**  
Zuria. Neur. 180 x 75 x 74 cm.


**AKÍ Durango**

**Bl-632 errep., Montorreta k.**

**[www.aki.es](http://www.aki.es)**

# GREMIOEN

# GIDA



**DEKORAZIOA**  
OBREN KOORDINAZIOA • MARIAN CARRACEDO DEKORATZAILEA

dekorazio estudioa

**trastévere**  
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua  
tel/faxa. 943 17 90 89  
trastevere@wanadoo.es

**ITURGINTZA**

FONTANERIA  
**B. DE DIOS**

Baimendutako instalatzaileak  
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta  
petrolio produktua  
Komunetako altzariak  
eta osagarriak

Gipuzkoa etorb. 48 - behea  
Tel/Fax. 943 17 01 09  
E-maila: bdedios@euskalnet.net

**PINTURAK**

**J. LUCAS**  
PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

**ELEKTRIZITATEA**

**BETA**

**ARGIZTAPENA  
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13      943 17 65 25  
689 23 31 71

**ERROTULAZIOA**

**ROTEK**  
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea  
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)  
☎ eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

**LUIS VALLE**

Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56

Tailerra  
943 17 23 56

Goienkale z/g

**PERTSIANAK**

**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:  
Zearreko buelta 2  
943 17 66 34  
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60

**AROTZEGIA**

**iraner**  
Puertas EDER Carpintería

- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdingegiko artikulua salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria
- Gremioen koordinazioa

Bizkaia etorbidea 10. behea Ermua. Tel. 943174925 • iranercb@gmail.com

**ITURGINTZA**

Igeltserotza - Iturgintza

**Errekalde**

Esteban Goikoetxea  
Errekalde baserria, 1  
48260 ERMUA Bizkaia  
Tel: 662 51 42 68  
errekalde.gm@gmail.com

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...  
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com